

ORDENANZA FISCAL MUNICIPAL

Nº 2

REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.-

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales y en la Norma Foral 4/2016, de 18 de mayo, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, exige este tributo con arreglo a la presente Ordenanza.

Artículo 2.-

1.- La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

2.- En caso de que un mismo inmueble se encuentre localizado en distintos términos municipales se entenderá, a efectos de este impuesto, que pertenece a cada uno de ellos por la superficie que ocupe en el respectivo término municipal.

II. HECHO IMPONIBLE

Artículo 3.-

1.- El Impuesto sobre Bienes Inmuebles es un tributo directo de carácter real que grava el valor de los bienes inmuebles de naturaleza rústica, urbana y bienes inmuebles de características especiales sitos en el término municipal cuyo hecho imponible lo constituye la titularidad de los siguientes derechos sobre los citados bienes:

- a) De una concesión administrativa sobre los propios inmuebles o sobre los servicios públicos a que se hallen afectos.
- b) De un derecho real de superficie.
- c) De un derecho real de usufructo.
- d) Del derecho de propiedad.

2.- La realización del hecho imponible que corresponda de entre los definidos en el apartado anterior, por el orden en él establecido, determinará la no sujeción del inmueble urbano o rústico a las restantes modalidades en el mismo previstas.

En los inmuebles de características especiales se aplicará esta misma prelación, salvo cuando los derechos de concesión que puedan recaer sobre el inmueble no agoten su extensión superficial, supuesto en el que también se realizará el hecho imponible por el derecho de propiedad sobre la parte del inmueble no afectada por una concesión.

3.- A los efectos de este impuesto tendrán la consideración de bienes inmuebles rústicos, urbanos y de características especiales los definidos como tales en la Norma Foral 3/2016 reguladora del Catastro Inmobiliario Foral.

III- EXENCIONES

Artículo 4.-

1.- Exenciones obligatorias de carácter no rogado.

Gozarán de exención los siguientes bienes:

- a) Los que sean propiedad del Estado, de la Comunidad Autónoma del País Vasco, del Territorio Histórico de Bizkaia o de las entidades locales y estén directamente afectos a la defensa nacional, la seguridad ciudadana y a los servicios educativos y penitenciarios.
- b) Los bienes comunales y los montes vecinales en mano común.
- c) La superficie de los montes poblados con especies de crecimiento lento reglamentariamente determinadas, cuyo principal aprovechamiento sea la madera o el corcho, siempre que la densidad del arbolado sea la propia o normal de la especie de que se trate.

Asimismo, la superficie de los montes en que se realicen repoblaciones forestales o regeneración de masas arboladas sujetas a proyectos de ordenación o planes técnicos aprobados por la Administración forestal. Esta exención tendrá una duración de quince años, contados a partir del período impositivo siguiente a aquel en que se realice su solicitud, siempre que no se trate de especies de crecimiento rápido.

- d) Los de la Iglesia Católica, en los términos previstos en el Acuerdo entre el Estado Español y la Santa Sede sobre Asuntos Económicos, de 3 de enero de 1979.
- e) Los de las asociaciones confesionales no católicas legalmente reconocidas, en los términos establecidos en los respectivos acuerdos de cooperación suscritos a que se refiere el artículo 16 de la Constitución.
- f) Los de la Cruz Roja Española y otras entidades asimilables que reglamentariamente se determinen.
- g) Los de la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea.
- h) Los de los Gobiernos extranjeros destinados a su representación diplomática, consular, o a sus organismos oficiales, a condición de reciprocidad o conforme a los Convenios Internacionales

en vigor.

- i) Los de aquellos organismos o entidades a los que sea de aplicación la exención en virtud de Convenios Internacionales en vigor.
- j) Los terrenos ocupados por las líneas de ferrocarriles y los edificios enclavados en los mismos terrenos, que estén dedicados a estaciones, almacenes o a cualquier otro servicio indispensable para la explotación de dichas líneas. No están exentos, por consiguiente, los establecimientos de hostelería, espectáculos, comerciales y de esparcimiento, las casas destinadas a viviendas de los y las empleadas, las oficinas de la dirección ni las instalaciones fabriles.
- k) Los bienes inmuebles cedidos sin contraprestación a los ayuntamientos, en los que estén enclavados.

2. Exenciones obligatorias de carácter rogado:

Previa solicitud, estarán exentos los siguientes bienes:

- a) Los bienes inmuebles que tengan la condición de monumento a que se refiere la letra a) del apartado 2 del artículo 2 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco. Esta exención alcanzará tanto a los bienes culturales calificados como inventariados, siempre que se reúnan los requisitos que determina la citada Ley 7/1990, de 3 de julio.

Igualmente estarán exentos los bienes inmuebles que formen parte de un conjunto monumental a que se refiere la letra b) del apartado 2 del artículo 2 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco. Esta exención sólo alcanzará a los inmuebles, calificados o inventariados, que reuniendo los requisitos que determina la citada Ley estén incluidos dentro de los regímenes de protección especial o de protección media. Asimismo, estarán exentos los bienes inmuebles que se encuentren dentro de una zona arqueológica a que se refiere el artículo 44 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, declarada como Bien Cultural, tanto sea calificada como sea inventariada, y siempre que, tras haber sido objeto de algún tipo de intervención arqueológica, el Departamento correspondiente del Gobierno Vasco haya establecido la necesidad de mantener en los mismos los restos encontrados, sin que puedan ser eliminados ni trasladados.

- b) Los centros docentes privados acogidos al régimen de conciertos educativos, en tanto mantengan su condición de centros concertados.

3. Exenciones potestativas.

- a) Los bienes inmuebles en los que se realicen exclusivamente actividades sociales, siempre y cuando dicha exención fuera acordada por el ayuntamiento y sin perjuicio de lo dispuesto en la Norma Foral 1/2004, de 24 de febrero, del régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

b) En conformidad con el artículo 3.4 de la Norma Foral 4/2016, se establece, por criterios de eficiencia y economía en la gestión recaudatoria del tributo, la exención de los inmuebles cuya cuota líquida no supere la cuantía de 6,00 (seis) euros, a cuyo efecto, para los rústicos, se podrán agrupar en un único documento de cobro todas las cuotas de éste impuesto relativas a un mismo sujeto pasivo.

IV. SUJETO PASIVO

Artículo 5.-

1.- Son sujetos pasivos de este impuesto, a título de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el apartado 3 del artículo 34 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, así como las herencias que se hallen pendientes del ejercicio de un poder testatorio, que ostenten la titularidad del derecho que, en cada caso, sea constitutivo del hecho imponible de este Impuesto.

Cuando la condición de contribuyente recaiga en varios o varias concesionarias, cada uno lo será por su cuota, que se determinará en razón a la parte del valor catastral que corresponda a la superficie concedida y a la construcción directamente vinculada a cada concesión. Sin perjuicio del deber de los y las concesionarias de formalizar las declaraciones a que se refiere la Norma Foral 3/2016 del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, el ente u organismo público al que se halle afectado o adscrito el inmueble o aquel a cuyo cargo se encuentre su administración y gestión, estará obligado a suministrar al Departamento de Hacienda y Finanzas la información relativa a dichas concesiones en los términos y demás condiciones que se determinen reglamentariamente.

Cuando el o la propietaria tenga la condición de contribuyente en razón de la superficie no afectada por las concesiones, actuará como sustituto de la misma el ente u organismo público al que se refiere el párrafo anterior, el cual no podrá repercutir en el o la contribuyente el importe de la deuda tributaria satisfecha.

2.- Lo dispuesto en el apartado anterior será de aplicación sin perjuicio de la facultad del sujeto pasivo de repercutir la carga tributaria soportada conforme a las normas de derecho común.

Las Administraciones Públicas y los entes u organismos públicos repercutirán la parte de la cuota líquida del impuesto que corresponda en quienes, no reuniendo la condición de sujetos pasivos del mismo, hagan uso mediante contraprestación de sus bienes demaniales o patrimoniales, los cuales están obligados a soportar la repercusión. A tal efecto, la cuota repercutible se determinará en razón a la parte del valor catastral que corresponda a la superficie utilizada y a la construcción directamente vinculada a cada arrendatario o arrendataria, cesionario o cesionaria del derecho de uso.

3.- Tratándose de bienes pro indiviso pertenecientes a una pluralidad de personas, la titularidad catastral se atribuirá a cada uno de los y las comuneras, miembros o partícipes por su respectiva cuota y, en su caso, a la comunidad constituida por todas ellas, que constará identificada con su Número de Identificación Fiscal.

En este caso, se podrá solicitar la división de la cuota tributaria, siendo indispensable aportar los datos

personales y los domicilios fiscales del resto de los y las obligadas al pago.

No podrá dividirse la cuota tributaria en aquellos supuestos que, como consecuencia de la misma resulten cuotas inferiores a 6,00 (seis) Euros.

4.- No procederá la división de la cuota del tributo y se practicará una sola liquidación, en el caso que se trate de bienes cuya titularidad sea común a los cónyuges en régimen de sociedad de gananciales o comunicación foral de bienes o a los miembros de parejas de hecho que hayan pactado como régimen económico-patrimonial cualquiera de los anteriores.

Artículo 6.-

1.- En los supuestos de cambio, por cualquier causa, en la titularidad de los derechos que constituyen el hecho imponible de este impuesto, los bienes inmuebles objeto de dichos derechos quedarán afectos al pago de la totalidad de la cuota tributaria, en régimen de responsabilidad subsidiaria, en los términos previstos en la letra d) del apartado 1 del artículo 42 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

A estos efectos, los notarios y notarias solicitarán información y advertirán a los y las comparecientes en los documentos que autoricen sobre las deudas pendientes por este impuesto asociadas al inmueble que se transmite, y sobre la afección de los bienes al pago de la cuota tributaria.

2.- Responden solidariamente de la cuota de este impuesto, y en proporción a sus respectivas participaciones, las y los copartícipes o cotitulares de las entidades a que se refiere el apartado 3 del artículo 34 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, si figuran inscritos como tales en el Catastro Inmobiliario Foral. De no figurar inscritos, la responsabilidad se exigirá por partes iguales en todo caso.

V. BASE IMPONIBLE

Artículo 7.-

La base imponible de este impuesto estará constituida por el valor catastral de los bienes inmuebles que se regula en la Norma Foral 3/2016 del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia.

VI. CUOTA TRIBUTARIA

Artículo 8.-

1.- La cuota íntegra de este impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible el tipo de gravamen.

2.- La cuota líquida se obtendrá minorando la cuota íntegra, en su caso, en el importe de las bonificaciones previstas en los artículos 9 y 10 de esta Ordenanza.

3.- Los tipos de gravamen del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicable a los bienes de naturaleza

urbana quedan fijados en los siguientes tipos, diferenciados por usos urbanos, atendiendo a los usos establecidos en la normativa catastral para la valoración de los bienes inmuebles de naturaleza urbana:

- Para el uso de Industria (I) el tipo de gravamen queda fijado en el 0,5642 %.
- Para el uso de Comercio (C) el tipo de gravamen queda fijado en el 0,2000 %.
- Para el uso General (G) el tipo de gravamen queda fijado en el 0,1800 %.
- Para el resto de usos, (R) el tipo de gravamen queda fijado en el 0,1700 %.

Cuando los inmuebles tengan atribuido varios usos se aplicará el tipo correspondiente al uso de la edificación o dependencia principal.

4.- El tipo de gravamen del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicable a los bienes de naturaleza rústica, queda fijado en el 0,072 %.

5.- A los bienes inmuebles de características especiales a los que sea de aplicación la disposición transitoria segunda de la Norma Foral 3/2016 del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico, se les aplicará el tipo de gravamen del 1,3 %.

VII. BONIFICACIONES

BONIFICACIONES OBLIGATORIAS

Artículo 9.-

1.- Tendrán derecho a una bonificación del cincuenta por ciento en la cuota íntegra del impuesto, siempre que así se solicite por los y las interesadas con la declaración de alta de obra nueva, los inmuebles que constituyan el objeto de la actividad de las empresas de urbanización, construcción y promoción inmobiliaria tanto de obra nueva como de rehabilitación equiparable a ésta, y no figuren entre los bienes de su inmovilizado.

El plazo de aplicación de esta bonificación comprenderá desde el periodo impositivo siguiente a aquel en que se inicien las obras hasta el posterior a la terminación de las mismas, siempre que durante ese tiempo se realicen obras de urbanización o construcción efectiva, y sin que, en ningún caso, pueda exceder de tres periodos impositivos.

2.- Tendrán derecho a una bonificación del 50 por 100 en la cuota íntegra del Impuesto, durante los tres periodos impositivos siguientes al del otorgamiento de la calificación definitiva, las viviendas de protección pública y las que resulten equiparables a éstas conforme a la normativa de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.- Tendrán derecho a una bonificación del 95 por 100 de la cuota íntegra los bienes rústicos de las cooperativas agrarias y de explotación comunitaria de la tierra, en los términos establecidos en la Norma Foral 9/1997, de 14 de octubre, sobre Régimen Fiscal de las Cooperativas.

BONIFICACIONES POTESTATIVAS

Artículo 10.-

1.- Tendrán derecho a una bonificación del 100 por 100 de la cuota del impuesto a favor de inmuebles situados en Conjuntos Monumentales, Históricos, Cascos o Espacios Culturales, siempre y cuando los y las titulares del inmueble tengan obligación de mantener la estructura, fachada, cubierta u otros elementos análogos.

Asimismo, estarán exentos los bienes inmuebles que se encuentren dentro de una zona arqueológica a que se refiere el artículo 44 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, declarada como Bien Cultural, tanto sea calificada como sea inventariada, y siempre que, tras haber sido objeto de algún tipo de intervención arqueológica, el Departamento correspondiente del Gobierno Vasco haya establecido la necesidad de mantener en los mismos los restos encontrados, sin que puedan ser eliminados ni trasladados.

Esta bonificación deberá ser solicitada por los y las interesadas, debiendo acreditar que los bienes inmuebles cumplen con la condición de monumento a que se refiere la letra a) del apartado 2, del artículo 2 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco. Esta exención alcanzará tanto a los bienes culturales calificados como inventariados, siempre que se reúnan los requisitos que determina la citada Ley 7/1990, de 3 de julio.

2.- Tendrán derecho a una bonificación un 20 por 100 de la cuota íntegra del Impuesto para los bienes inmuebles en los que se hayan instalado sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía proveniente del sol. La aplicación de esta bonificación estará condicionada a que las instalaciones para producción de calor incluyan colectores que dispongan de la correspondiente homologación por la Administración competente.

Esta bonificación deberá ser solicitada por los y las interesadas, debiendo acreditar la instalación y puesta en marcha del sistema de aprovechamiento térmico o eléctrico en donde conste que se encuentra homologado por el Departamento de Industria.

El plazo de aplicación de esta bonificación será de cinco años comenzando en el periodo impositivo siguiente a aquel en que se acredite la instalación y puesta en marcha del sistema.

3.-. Tendrán una bonificación del 100 por 100 de la cuota íntegra del Impuesto para los inmuebles situados en zonas afectadas por catástrofes naturales.

VIII. RECARGO POTESTATIVO A BIENES INMUEBLES DE USO RESIDENCIAL POR NO CONSTITUIR RESIDENCIA

Artículo 11.-

No se establece esta posibilidad.

IX. DEVENGO y PERIODO IMPOSITIVO

Artículo 12.-

- 1.- El impuesto se devengará el primer día del periodo impositivo.
- 2.- El período impositivo coincide con el año natural.
- 3.- Los hechos, actos y negocios que deben ser objeto de declaración o comunicación ante el Catastro Inmobiliario Foral tendrán efectividad en el devengo de este impuesto inmediatamente posterior al momento en que produzcan efectos catastrales, sin que dicha eficacia quede supeditada a la notificación de los actos administrativos correspondientes.

Los actos dictados como consecuencia de los procedimientos de revisión y modificación de valores catastrales tendrán eficacia en los mismos términos contemplados en la Norma Foral reguladora del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia.

X. GESTIÓN DEL IMPUESTO

Artículo 13.-

- 1.- El impuesto se gestiona a partir de la información contenida en el Padrón catastral que se formará anualmente para este término municipal, conforme a lo establecido en la normativa reguladora del Catastro Inmobiliario Foral.

La formación de dicho Padrón corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, y estará a disposición del Ayuntamiento y al mismo se dará acceso a los interesados en la página de Internet de la Diputación Foral de Bizkaia a través de formularios de consulta que requerirán de la aportación de una serie de datos identificativos a los efectos de garantizar la adecuada protección de los datos de carácter personal.

- 2.- Concluido el plazo de exposición al público del Padrón catastral y resueltos los recursos y/o reclamaciones, la Diputación Foral de Bizkaia, en virtud de la delegación asumida, confeccionará los recibos y aprobará las listas cobratorias, que estarán a disposición de este ayuntamiento y a las mismas se dará acceso a los y las interesadas en la página de Internet de la Diputación Foral de Bizkaia, a través de formularios de consulta que requerirán de la aportación de una serie de datos identificativos a los efectos de garantizar la adecuada protección de los datos de carácter personal.

3.- Se podrán agrupar en un único documento de cobro todas las cuotas de este impuesto relativas a un mismo sujeto pasivo cuando se trate de bienes rústicos sitos en un mismo municipio.

Artículo 14.-

1.- Las facultades de gestión, inspección y recaudación, tanto en período voluntario como en ejecutivo, así como la revisión de los actos dictados en vía de gestión tributaria corresponden a este ayuntamiento para los bienes que radiquen en su término municipal.

2.- En concreto, corresponde a este ayuntamiento la concesión y denegación de exenciones y bonificaciones, realización de las liquidaciones para la determinación de las deudas tributarias, emisión de los documentos de cobro, resolución de los expedientes de devolución de ingresos indebidos, resolución de los recursos que se interpongan contra dichos actos y actuaciones para la asistencia e información al contribuyente referidas a las materias comprendidas en este apartado.

3.- El ayuntamiento podrá delegar en la Diputación Foral de Bizkaia todas o algunas de las funciones descritas en los dos apartados anteriores, en los términos que reglamentariamente se establezcan.

DISPOSICION FINAL

1.- La presente Ordenanza surtirá efectos a partir del día uno de enero de 2017 y permanecerá vigente hasta que se acuerde su modificación o derogación.

Publicada en BOB N° 169 de 5 de septiembre de 2016.

**SOPUERTAKO UDALEKO ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA
ORDENANTZA**

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.-

Udal honek, bat eginik Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauak eta Ondasun Higiezin gainera buruzko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauak xedaturikoarekin, zerga hau ordenantza honen arabera ezar dadila eskatzen du.

2. artikulua.-

1.- Ordenantza udal-barruti osoan aplikatuko da.

2.- Higiezin bera udalerrri batean baino gehiagotan badago, udal-barruti bakoitzean duen azalera hartuko da kontuan zerga honen ondorioetarako.

II. ZERGA EGITATEA

3. artikulua.-

1.- Ondasun Higiezin gainera Zerga zerga zuzena eta erreala da, eta udal-barrutian dauden landa-ondasun higiezin, hiri-ondasun higiezin eta ondasun higiezin berezien balioa zergapetzen du, baldin eta haien zerga-egitate ondasun horien gainera eskubide hauen titulartasuna bada:

- a) Ondasun higiezin edo ondasun higiezin horiek atxikita dauden zerbitzu publikoen gainera administrazio-emakida.
- b) Lurrazal-eskubide erreala.
- c) Gozamen-eskubide erreala.

d) Jabetza-eskubidea.

2.- Aurreko paragrafoan zehaztutako zerga-egitateetako bat bertan ezarritako hurrenkerari jarraikiz gauzatzen bada, landa- edo hiri-ondasun higiezinak ez da egongo paragrafo horietako gainerako modalitateen kargapean.

Ondasun higiezin berezien kasuan ere hurrenkera horri berari jarraituko zaio, baldin eta higiezinaren gaineko emakida-eskubideek higiezinaren luze-zabala amaitzen ez badute; izan ere, kasu horretan ere zerga-egitatea sortuko da, emakidapeko higiezinaren zatiaren gaineko jabetza-eskubidea dela eta.

3.- Zerga honen ondorioetarako, landa-ondasun higiezinak, hiri-ondasun higiezinak eta ondasun higiezin bereziak izango dira Higiezinaren Foru Katastroa arautzen duen 3/2016 Foru Arauan halakotzat jotzen direnak.

III. SALBUESPENAK

4. artikulua.-

1.- Erregukoak ez diren nahitaezko salbuespenak.

Honako ondasun hauei ez zaie zergarik ezarriko:

- a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Bizkaiko Lurralde Historikoaren eta toki-erakundearen jabetzako ondasunak, defentsari, herritarren segurtasunari eta hezkuntza-zerbitzuei zein presondegi-zerbitzuei zuzenean lotuta badaude.
- b) Auzo-ondasunak eta guztion eskuko auzo-mendiak.
- c) Arauz ezarritako hazkunde moteleko espezieekin landatutako mendien azalera, baldin eta haien aprobetxamendu nagusia egurra edo artelazkia bada, betiere zuhaitzen dentsitatea espezie bakoitzaren kasuan berezkoa edo arrunta bada.

Horrez gain, basoen administrazioak onartutako antolamendu-proiektuen edo plan teknikoaren arabeko baso-berritzeak edo zuhaitzien berritzeak egiten diren mendien azalera. Salbuespen honek hamabost urte iraungo du, salbuespenerako eskabidea egiten den zergaldiaren hurrengotik aurrera zenbatuta, betiere hazkunde arineko espezieak ez badira.

- d) Eliza Katolikoaren ondasunak, 1979ko urtarrilaren 3an Espainiako Estatuak eta Vatikanokoak gai ekonomikoei buruz sinatutako akordioan araututakoaren arabera.
- e) Legez aitortutako elkarte konfesional ez-katolikoak, Konstituzioaren 16. artikuluan aipatutako lankidetzaren hitzarmenetan aurreikusitako baldintzetan.
- f) Espainiako Gurutze Gorriaren ondasunak eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuenak.
- g) Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen ondasunak.
- h) Atzerriko gobernuen ondasunak, beraien ordezkari diplomatikoei, kontsulatuetakoei edota erakunde ofizialei zuzendutakoak, elkarrekikotasunaren edota indarrean dauden nazioarteko hitzarmenen arabera.
- i) Indarrean dauden Nazioarteko Hitzarmenak direla-eta salbuespena aplikatu dakiekeen erakunde edo entitateen ondasunak.
- j) Trenbideek okupatutako lurak eta lur horietan dauden eraikinak, geltokitarako, biltokitarako edo trenbideok ustiatzeko ezinbestekoa den beste edozein zerbitzutarako erabiltzen badira. Ondorioz, ez dira salbuetsiko zerga ordaindu behar izatetik ez ostalaritza-, ikuskizun-, merkataritza- eta aisialdi-establezimenduak, ez enplegatuen etxebizitzatarako erabiltzen diren etxeak, ez zuzendaritzaren bulegoak edo industria-instalazioak.
- k) Udalei kontraprestaziorik gabe lagatako ondasun higiezinak, ondasunok dauden udalei lagatakoak badira.

2. 1.- Nahitaezko erregu-salbuespenak.

Aurretik eskaera eginez gero, honako ondasun hauei ez zaie zergarik ezarriko:

- a) Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen (uztailaren 3ko 7/1990) 2. artikulua 2. idatzi-zatiko a) letraren arabera monumentu-izendapena duten ondasunak. Salbuespen hori kultur ondasun kalifikatuei ezarriko zaie, baldin eta uztailaren 3ko 7/1990 Legeak adierazitako baldintzak betetzen badituzte.

Halaber, salbuetsita egongo dira Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen (uztailaren 3ko 7/1990) 2. artikuluko 2. idatzi-zatiko b) letran aipatzen den monumentu multzo baten osagai diren ondasun higiezinak. Salbuespen hori babes bereziko erregimenaren barruan sartzen diren higiezin kalifikatu edo inbentariatuei bakarrik aplikatuko zaie, aipatutako Legeak ezarritako baldintzen arabera. Era berean, salbuetsita egongo dira Euskadiko Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 44. artikuluan adierazten den gune arkeologikoaren barruan dauden ondasun higiezinak, kultur ondare gisa sailkatutakoak, kalifikatuta zein inbentarioa eginda egon, eta betiere esku-hartze arkeologiko motaren bat izan ondoren, Eusko Jaurlaritzako dagozkion sailak erabakitzen badu aurkitutako hondakinak horietan mantentzea, horiek kendu edo lekuz aldatu gabe.

- b) Hezkuntza-itunen araubidean dauden ikastetxe pribatuak, betiere itunpeko zentroen baldintza mantentzen badute.

3. Hautazko salbuespenak.

- a) Soilik gizarte-jarduerak egiteko erabiltzen diren ondasun higiezinak, betiere salbuespen hori udalak erabakitakoa bada. Nolanahi ere, Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubidearen Foru Arauan (otsailaren 24ko 1/2004) ezarritakoa eta mezenasgoari dagozkion zerga-pizgarriak aplikatuko dira.

- b) 4/2016 Foru Arauaren 3.4 artikuluaekin bat, eta zerga-bilketaren kudeaketari dagozkion eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideak direla eta, zerga ordaintzetik salbuetsita egongo dira gehienez ere 6,00 (sei) euroko kuota likidoa duten ondasun higiezinak. Horretarako, landa-ondasunak direnean, kobrantza-agiri bakar batean bildu ahalko dira subjektu pasibo berari dagozkion zerga-kuotak.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK

5. artikulua.-

1.- Zerga honen subjektu pasiboak hauek dira, zergadun gisa: pertsona fisikoak eta juridikoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 34. artikuluko 3. zenbakian aipatutako erakundeak eta testamentu-ahalordea erabili zain dauden jaraunspenak, baldin eta zerga honen zerga-egitatea den eskubide baten titular badira.

Emakidadun bat edo batzuk badira zergadun, emakidadun bakoitza bere kuotaren arabera izango da zergadun, eta, kuota erabakitzeko, kontuan hartuko da zer katastro-balio dagokion emandako azalerari eta zer katastro-balio dagokion emakida bakoitzari zuzenean lotutako eraikinari. Emakidadunek Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko 3/2016 Foru Arauan aipatzen diren deklarazioak egiteko betebeharra badute ere, ondasun higiezina afektatuta edo atxikita dagoen entitate edo erakunde publikoak edo ondasunaren administrazio eta kudeaketaren ardura duenak emakidei buruzko informazioa eman beharko dio Ogasun eta Finantza Sailari, erregelamenduz ezartzen diren modu eta baldintzetan.

Jabea zergaduna bada, emakidek ukitzen ez duten azalera dela eta, aurreko paragrafoan aipatzen den entitateak edo erakundeak haren ordezkotza jardungo du, eta ezingo dio zergadunari jasanarazi berak ordaindutako zerga-zorren zenbatekoa.

2.- Aurreko atalean ezarritakoa aplikatu behar bada ere, subjektu pasiboak ahalmena izango du berak jasandako zerga-zama beste batzuei jasanarazteko, zuzenbide erkideko arauari jarraituz.

Administrazio publikoek eta entitate edo erakunde publikoek dagokien kuota likidoaren zatia jasanaraziko diete zergaren subjektu pasibo izan ez arren jabari publikoko ondasunak edo ondare-ondasunak kontraprestazio bidez erabiltzen dituztenei, eta azken horiek behartuta daude adierazitako kuota hori jasatera. Bada, bakoitzari jasanarazi beharreko kuota kalkulatzeko, kontuan hartuko da zer katastro-balio dagokion erabilitako azalerari eta zer katastro-balio dagokion erabilera-eskubidearen errentari edo lagapen-hartzaile bakoitzari zuzenean lotutako eraikinari.

3.- Ondasun higiezinak pro indiviso badagozkie pertsona askori, katastroko titulartasuna bakoitzari dagokion kuotaren arabera esleituko zaio erkide, kide edo partaide bakoitzari eta, hala denean, haiek guztiek osatutako erkidegoari; erkidego hori identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez adieraziko da.

Kasu horretan, zerga-kuota zatitzeko eskatu ahal izango da, baina, horretarako, behar-beharrezkoa da ordaintzera behartuta dauden guztien datu pertsonalak eta helbide fiskalak ematea.

Zerga-kuota ezingo da zatitu baldin eta zatiketaren ondorioz ateratzen diren kuotak 6,00 (sei) euro baino txikiagoak badira.

4.- Ezin izango da zergako kuota banatu, eta likidazio bakarra egingo da, irabazpidezko ondasunen sozietateko edo ondasunen foru-komunikazioko ezkontideentzat edo aurrean aipatutako edozein ondasun-araubide ekonomiko moduan hitzartu duten izatezko bikoteetako kideentzat titulartasuna bateratua denean.

6. artikulua.-

1.- Zerga honen zerga-egitate diren eskubideen titulartasuna aldatzen bada edozein arrazoi dela eta, eskubideon xede diren ondasun higiezinak zerga-kuota osoa ordaintzeko erabili beharko dira, erantzukizun subsidiarioaren araubidean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 42. artikuluko 1. zenbakiko d) letran ezarritakoaren arabera.

Horretarako, notarioek informazioa eskatuko diete bertaratuei, jakiteko ea bere aurrean eskuetsiko dituzten dokumentuen bidez eskualdatzen duten higiezinan zerga hau dela-eta ordaindu gabeko zorrik dagoen eta ohartaraziko diete ezen ondasunok zerga-kuota ordaintzeko erabili beharko direla.

2.- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 34. artikuluko 3. zenbakian aipatutako erakundeetako partaidekide edo titularkideek solidarioki ordainduko dute zerga honen kuota, bakoitzak bere partaidetzari dagokiona, Higiezinaren Foru Katastroan hala inskribatuta badaude. Katastroan inskribatuta ez badaude, erantzukizuna hainbana eskatuko da beti.

V. ZERGA-OINARRIA

7. artikulua.-

Zerga honen zerga-oinarria ondasun higiezinaren katastro-balioa izango da, eta hori Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko 3/2016 Foru Arauan arautzen da.

VI. ZERGA-KUOTA

8. artikulua.-

1.- Zerga honen kuota osoa zein den zehazteko, zerga-oinarrian karga-tasa ezartzean lortzen den emaitza hartu beharko da kontuan.

2.- Kuota likidua kalkulatzeko, berriz, kuota osotik kendu egin behar dira ordenantza honen 9. eta 10. artikuluetan ezarritako hobariak, halakorik aplikatzerik badago.

3.- Hiri-ondasunetan ezarri beharreko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren karga-tasak honako tasa hauetan finkatuko dira, hiri-erabileraren arabera bereizita, eta kontuan hartuko dira hiri-ondasun higiezinak balioesteko katastroari buruzko arautegian ageri diren erabilerak:

-Industria-erabilerarako (I) karga-tasa % 0,5642koa izango da.

-Merkataritza-erabilerarako (C) karga-tasa % 0,2000koa izango da.

-Erabilera orokorrerako (G) karga-tasa % 0,1800koa izango da.

-Gainerako erabileretarako (R) karga-tasa % 0,1700koa izango da.

Higieziinei hainbat erabilera esleitu zaizkienean, eraikuntzaren erabilerari edo mendekotasun nagusiari dagokion tasa aplikatuko da.

4.- Landa-ondasunetan ezarri beharreko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren karga-tasa % 0,072koa izango da.

5.- Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko 3/2016 Foru Arauaren bigarren xedapen iragankorraren mendeko ondasun higiezin bereziei % 1,3ko karga-tasa ezarriko zaie.

VII. HOBARIAK

DERRIGORREZKO HOBARIAK

9. artikulua.-

1.- Interesdunek obra berrirako alta-adierazpenaren bidez halaxe adieraziz gero, higiezinak zergaren kuota osoaren gaineko % 50eko hobarirako eskubidea izango dute obra berriko edo zaharberritu beharreko higiezinak urbanizatu, eraiki eta sustatzen dituzten enpresetako jardueraren helburu direnean, betiere, euren ibilgetuko ondasunen artean ez badaude.

Obrei ekin eta hurrengo zergalditik hasi eta obrak amaitu eta hurrengo zergaldira bitartean aplikatu ahal izango da hobari hau, baldin eta epe horretan benetan egiten badira urbanizazio- edo eraikuntza-obrak. Nolanahi ere, epe hori ezin da hiru zergaldi baino luzeagoa izan.

2.- Babes publikoko etxebizitzek eta, Euskal Autonomia Erkidegoko arauen arabera, haiekin berdinetan ahal diren etxebizitzek % 50eko hobaria jaso ahal izango dute zergaren kuota osoan, behin betiko kalifikazioa eman eta hurrengo hiru zergaldietan.

3.- Nekazaritzako kooperatiben eta lurren taldekako ustiapenezko kooperatiben landa-ondasunek zerga-kuota osoaren % 95eko hobaria jaso ahal izango dute; horretarako, Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko urriaren 14ko 9/1997 Foru Arauan ezarritakoa hartu behar da aintzat.

HAUTAZKO HOBARIAK

10. artikulua.-

1.- Monumentu multzoetan, multzo historikoetan, hiriguneetan edo kultur guneetan dauden higiezinak zerga-kuotaren % 100eko hobaria jaso ahal izango dute, betiere higiezinaren titularrek horien egitura, fatxada, estalkia edo antzeko beste elementu batzuk mantentzeko betebeharra badute.

Orobat, salbuetsita daude Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 44. artikuluan aipatzen diren zona arkeologikoetan dauden ondasun higiezinak, baldin eta delako zona hori ondasun kultural izendatu bada (kalifikatua zein inbentariatua) eta, gainera, Eusko Jaurlaritzako sail eskudunak gune horretan esku-hartze arkeologikoa egin ondoren erabakitzen badu aurkitutako hondakinak bertan geratu behar direla eta ezin direla, beraz, ez desagerrarazi ez beste leku batera eraman.

Interesdunek hobari hori eskatu behar izango dute, eta frogatu beharko dute ondasun higiezinak Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikuluan 2. ataleko a) letran aipatzen den

monumentu-izendapena dutela. Inbentariatutako ondasuntzat jotzen diren ondasun kulturalak ere salbuetsita egongo dira, baldin eta uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritako betekizunak betetzen badituzte.

2.- % 20eko hobaria izango dute ondasun higiezin gaineko zergaren kuota osoan eguzkiaren energiari etekin termiko edo elektrikoa ateratzeko sistemak instalatuak dituztenek. Hobaria ezartzeko, beroa ekoizteko instalazioetan administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak jarri behar dira.

Interesdunek hobari hori eskatu behar izango dute, eta frogatu beharko dute eguzkiaren energiari etekin termikoa edo elektrikoa ateratzeko sistemak instalatu dituztela eta martxan daudela; frogagirian jaso beharko da, halaber, sistema horiek Industria Sailak homologatu dituela.

Hobari hau bost urtez aplikatu ahal izango da, sistema instalatu eta martxan jarri zela frogatu zen zergaldiaren hurrengotik aurrera zenbatzen hasita.

3.-. Zergaren kuota osoaren % 100eko hobarirako eskubidea izango dute hondamendi naturalek kalte egindako eremuetan dauden higiezinek.

VIII. HAUTAZKO ERREKARGUA BIZITEGIRIK ERAKI EZ DUTEN BIZITEGI-ERABILERA KO ONDASUN HIGIEZINENTZAT

11. artikulua.-

Ez da aukera hau aintzat hartzen.

IX. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

12. artikulua.-

1.- Zerga hori zergaldiaren lehen egunean sortuko da.

2.- Zergaldiak urte naturalarekin bat egiten du.

3.- Higiezinaren Foru Katastroari deklaratu edo komunikatu behar zaizkion egitate, egintza edo negozioak katastroan ondorioak sortzen dituzten unearen osteko zergaren sortzapena gertatzen den unean izango dira eraginkorrak, baina eraginkorrak izateko ez dago zertan egin haiei dagozkien administrazio-egintzen jakinarazpena.

Katastro-balioak berrikusteko edo aldatzeko prozeduren ondorioz emandako egintzak Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Araua zehazten den baldintza beretan izango dira eraginkorrak.

X. ZERGAREN KUDEAKETA

13. artikulua.-

1.- Zerga hau katastroko erroldan jasotako informazioan oinarrituta kudeatzen da, eta katastroko errolda hori urtero prestatuko da, udal-mugarte bakoitzerako, Higiezinaren Foru Katastroari buruzko arautegi erregulatuarekin ezarritakoarekin bat etorriz.

Errolda egitea Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, Udalaren esku egongo da, eta interesdunek Bizkaiko Foru Aldundiaren Interneteko orrian izango dute erroldarako sarbidea; horretarako, kontsulta-formulario batzuk egongo dira, identifikazio-datu batzuk eskatuko dituztenak datu pertsonalak behar bezala babesten direla ziurtatzeko.

2.- Katastroko errolda jendaurrean ikusgai jartzeko epea amaitutakoan eta errekursoak edota erreklamazioak ebatzitakoan, Bizkaiko Foru Aldundiak ordainagiriak egin eta kobrantza-zerrendak onesteko eginkizuna eskuordetzearen bidez bere gain hartuta daukanean, zerrendak Udalaren esku egongo dira, eta interesdunek Bizkaiko Foru Aldundiaren Interneteko orrian izango dute zerrendetarako sarbidea. Horretarako, kontsulta-formulario batzuk egongo dira; bertan, identifikazio-datu batzuk eman beharko dituzte, datu pertsonalak behar bezala babesten direla ziurtatzeko.

3.- Subjektu pasibo bati dagozkion zerga honen kuotak kobrantza-agiri bakarrean taldekatu ahal izango dira, baldin eta udalerrri berean dauden landa-ondasunei badagozkie.

14. artikulua.-

1.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga kudeatu, ikuskatu eta –hala borondatezko epean nola epe exekutiboan– biltzeko ahalmenak zein zerga-kudeaketa bidean emandako egintzak berrikusteko ahalmena zergapeko ondasun higiezinak kokatuta dauden udal-mugarterako udalari dagozkio.

2.- Zehazki, udal horri dagokio salbuespenak eta hobariak baimentzea edo ukatzea, zerga-zorrak zehazteko likidazioak egitea, kobratzeko agiriak egitea, okerreko diru-sarrerak itzultzeko espedienteak ebatzea, ekintza horien aurka jartzen diren errekurtsioak ebatzea eta zergadunei atal honetan jaso diren gaiei buruzko informazioa eta laguntza emateko jarduketak egitea.

3.- Udalek Bizkaiko Foru Aldundiari eskuordetu diezazkiokete aurreko bi ataletan zehazten diren eginkizun guztiak edo batzuk, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan.

AZKEN XEDAPENA

1.- Ordenantza honek 2017ko urtarrilaren batetik aurrera izango ditu ondorioak, eta aldatzea edo bertan behera uztea erabaki arte egongo da indarrean.

Sopuertan, 2016ko abuztuaren 23an.- Alkatea, Emilio Reina Laiseca.

Publicada en BOB Nº 169 de 5 de septiembre de 2016.